

2026ko ARRATEKO JAIETAKO TXOSNAK

2026ko Arrateko jaietan txosnak jartzeko interesa duen erakunde orok egin beharko du eskaera.

Txosnak jartzeko espazioa Arrateko Landa izango da. Gehienez 7 txosna + 1 (28X8 jantokia) jar daitezke.

Txosna 6X8koa izango da gehienez.

Eskaera bakarra aurkeztu ahal izango da pertsona juridiko bakoitzeko edo elkarte/talde bat ordezkatzeko duen pertsona fisiko bakoitzeko.

Arrateko jaietan txosna bat jartzeko adjudikazioa jaso dutenek ezin izango diote txosna zati batean edo osorik hirugarren bati utzi, ezta horretarako espazioa hirugarrenekin partekatu ere, adjudikaziodun bakoitzari destinatuta egoteagatik.

Eskaera egiteko epea 2026ko ekainaren 15etik uztailaren 1era (biak barne) izango da.

Eskaera egiteko bideak:

Pertsona juridikoak, erakundeak, elkarteak eta haien ordezkari diren pertsonak:

Elektronikoki, udal webgunetik: www.eibar.eus. Tramitea elektronikoki egiteko ziurtagiri digital bat (B@K-Q, NAN elektronikoa, IZENPE txartela, etab.) edukitzea beharrezkoa da.

Eskaera egiteko aurkeztu beharreko dokumentazioa:

- Legezko ordezkapenaren kasuan, legezko ordezkariaren NANA edo balio bereko dokumentua, eta ordezkariaren egiaztapena, dokumentu bidez. Egiaztapena zuzenbidean bidezkoa den edozein bide erabiliz egin daiteke (notario-ahalordez, eskritura bidez...). Ordezkapena Gipuzkoako Foru Aldundiko legezko ordezkarien erroldan erregistratuta egonez gero, ez da dokumentazioa aurkeztu beharko.
- Elikagaien manipulazailer karneta.

Txosnak jartzeko alderdiak adosteko bilera udaletxean egingo da, okupazioaren aurreko egunetan. Bileraren eguna, lekua eta ordua aldez aurretik argitaratuko dira udalaren webgunean (www.eibar.eus).

Txosnak jartzeko baimena emateko, agiri hauek aurkeztu beharko dira:

- Jarriko den txosnaren segurtasun-ziurtagiria.
- Erantzukizun zibileko aseguruia.

Instalatuko diren txosnen segurtasun eta muntaia ziurtagiria txosnak jartzen diren egunean bertan aurkeztu beharko da, eta erantzukizun zibileko aseguruia okupazioa hasi baino 2 egun lehenago beranduenez.

Txosnak jartzeko baimena dutenek udal jabari publikoaren erabilera pribatiboagatik edo aprobetxamendu bereziagatik tasak arautzen dituen Ordenantzan ezarritako tasa ordainduko dute.

Dokumentazio hau aurkezteko bideak:

- **Elektronikoki**, udal webguneko **DOKUMENTAZIOA AURKEZTEA** tramitetik: <https://www.eibar.eus/eu/tramiteak/tramiteak-zerbitzuak/bestelakoak/dokumentazioa-aurkeztea>. Tramitea elektronikoki egiteko ziurtagiri digital bat (B@K-Q, NAN elektronikoa, IZENPE txartela, etab.) edukitzea beharrezkoa da.

Baimenak adjudikatzeko prozedura:

Eskabideak aurkezteko epea amaitutakoan, aurkeztutako dokumentazioa kalifikatuko da. Onartuen eta baztertuen behin-behineko zerrenda sortuko da. Zerrendan, baztertuen atalean, baztertzeko arrazoia adieraziko da (baldintzak ez betetzea, dokumentazio osatugabea...).

Behin-behineko zerrenda hau jendaurrean egonen da Udalaren web orrian (www.eibar.eus).

Aldi baterako zerrendaren edukiaren kontra erreklamazioak jar daitezke 5 egun naturaleko epean, zerrenda udal webgunean (www.eibar.eus) argitaratu eta hurrengo egunetik aurrera zenbatuta.

Erreklamazioak eta dagokien dokumentazio guztia honela aurkeztuko da:

Elektronikoki, DOKUMENTAZIOA AURKEZTEA tramitetik, www.eibar.eus. Tramitea elektronikoki egiteko ziurtagiri digital bat (B@K-Q, NAN elektronikoa, IZENPE txartela, etab.) edukitzea beharrezkoa da.

Epe barruan aurkeztutako erreklamazioak ebatzi ondoren, onartuen eta baztertuen behin betiko zerrenda argitaratuko da. Onartuen zerrendan, eskatzaile bakoitzak zozketan parte hartzeko erabiliko duen zenbakia adieraziko da. Behin betiko zerrenda hori udalaren webgunean (www.eibar.eus) argitaratuko da, zozketa egiteko data eta lekuarekin batera.

Bete beharreko lekua baino eskaera gehiago egonez gero, lehentasuna izango dute helbide fiskala Eibarren duten eskatzaileei dagozkien eskaerek, edo egoitza fiskala Eibarren izan ez arren udalerrian modu jarraituan jarduerak egin dituzten elkarte/talde bateko eskabideek.

Udal-baimena emateko prozedura zozketa bidez egingo da. Zozketa ekitaldi publikoan egingo da, onartuen eta baztertuen behin betiko zerrendarekin batera iragarriko den egun eta orduan.

Onartuen zerrenda osatzen duten interesdunen artean zozketa egingo da.

- Onartuen behin betiko zerrendan agertzen diren eskatzaile adina zenbaki sartuko dira eta zenbaki bakar bat aterako da.
- Txosnak atera den zenbakiari dagokion eskaera-zenbaki horretatik hasita esleituko dira hurrenez hurren, goranzko hurrenkeran. Azkenengo eskaera zenbakituari lehenengo zenbakiak segituko dio.
- Txosnak eskuragarri dagoen espazioan jartzeko ordena korrelatiboki ezarriko da, eskuragarri dagoen espazioari jarraituz.

Zozketa egin ondoren, esleitutako txosnen zerrenda argitaratuko da. Zerrendan honako hauek sartuko dira: esleipendunak, esleitutako txosnaren zenbakia, txosnaren metro linealak, **2026ko irailaren 1a** baino lehen ordaindu beharreko tasaren zenbatekoa eta tasa ordaintzeko sistema. Zerrenda hori Udalaren web orrian argitaratuko da (www.eibar.eus).

Eibarren euskararen erabilera arautzeko udal Ordenantza betez eskatzaileei artikulu hau betetzeko eskatzen zaie:

15. artikulua.- Espazio publikoen, instalazioen eta materialen erabilera

Espazio publikoak, udal instalazioak eta materialak erabiltzeko eskaera egiten duten entitateek jendaurreko ekitaldiak burutzen dituztenean, herritarrei orohar ematen zaizkien azalpenak, bai ahoz, bai idatziz, euskaraz eta gaztelaniaz egingo dira.

Informazio idatzia: kartelak, esku-orriak, erabiltzen den guneko oharrak...

Ahozko jarduna: ekitaldiaren aurkezpena, oharrak, instrukzioak...

Herritar multzo euskal hiztunari zuzenduta dagoenean, euskara hutsean egin daiteke Entzule motagatik gaztelaniaren erabilera nagusi den jardueretan euskararen erabilera bermatuko da sarreran, aurkezpenetan eta laburpenetan.

Eibar, 2026ko maiatzaren 26a.

ZERBITZU SAILEKO TEKNIKARIA